



TOLOSAKO  
UDALA

## **Tolosako Udalean hiru lan txandatik goiz eta arratsaldeko lan txandan jarduteko irizpideak finkatzeko jarraibideak**

### **1. Xedea eta ezaugarriak**

Deialdi honen xedea da Tolosako Udaleko hiru lan txandatan (goiz, arratsalde eta gaua) lan egiten duten udaltzainak, bai karrerakoak baita bitarteko izaeraz izendatuak daudenak ere, bi lan txandatan (goiz eta arratsaldez) lan egiteko irizpideak finkatzea, 2024 urteko udaltzaingoaren egutegira egokitzeko helburuarekin.

Goiz eta arratsaldeko udaltzainen lanpostuak honako ezaugarri hauek ditu: C1 sailkapen-taldea, 19 lanpostu-mailako osagarria eta urteko soldata gordina 43.683,02 euro izango dira.

### **2. Eginkizunak**

Lanpostu honen eginkizunak, udalak onartuak dituen lanpostuen katalogoan finkatutakoak izango dira.

#### **ZAINTZA ETA BABESA:**

1. Prebentzioko zaintza- eta segurtasun-lanak egitea, herrigune eta landaguneetan oinez edo ibilgailuz ibiliz.
2. Gatazka pribatuetan bitartekotza egitea, horretarako eskatuz gero.
3. Ertzaintzarekin elkarlanean aritzea herritarren segurtasun-lanetan.
4. Zaintza-lanak eta pertsonak babesteko eta ordena zaintzeko lanak egitea, pertsona asko biltzen diren ekitaldietan (kirol ekitaldiak, jaiak, etab.).
5. Genero/etxeko indarkeriaren arloko babes-jarduketak egitea.
6. Udalerrian istripurik gertatuz gero, hara joatea, lagundu, babestu edo arazoa konpontzen saiatzeko.
7. Toki-korporazioetako agintariak babestea, eta haien eraikin eta instalazioak babestu edo zaintzea.

#### **POLIZIA ADMINISTRATIBOA:**

8. Udalerriko saltokien datu-basea eguneratuta izatea.
9. Establezimendu publikoak (ireki eta itxeko ordutegiak, zaratak eta abar betetzea) eta kalez kaleko salmenta kontrolatzea.
10. Aktak egitea udal-ordenantzen administrazio-urraketekin lotuta.
11. Zarata-neurketak egitea etxe partikularretan eta lokal pribatuetan, baita sonometria-aktak ere.



#### TRAFIKOA ETA ZIRKULAZIOA:

12. Ikastetxeetan sartu eta haietatik ateratzeko uneak zaindu eta kontrolatzea.
13. Udalerriko zirkulazioa kontrolatu eta antolatzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera.
14. Aparkalekua kontrolatzea (zamalana egiteko eremuak, lerro horiak, Udal edo elbarriei erreserbatutako aparkalekuak, etab.), eta, hala badagokio, ibilgailua ibilgetzea eta/edo abisua ematea udal-garabiak eramateko.
15. Ikusitako trafikoko arau-hausteak salatzea.
16. Trafikoko istripuetan laguntza ematea: behar diren bitartekoei abisua ematea, eragindako pertsonen laguntzea, lehen sorospenak egitea, eremu perimetrala mugatzea eta zirkulazioa antolatzea.
17. Ibilgailu bereziak (kamioiak, etab.) eskoltatzea eta haiei laguntzea herrigunean.
18. Zirkulazio-istripuak direla-eta, eginbideak instruitzea.
19. Istripu-adierazpen adiskidetsuak egiten laguntzea.
20. Alkoholemia-kontrolak eta gai estupefazianteen probak egitea.
21. Bide publikoan hautemandako kalteak jasotzea, bide publikoan herritarren segurtasuna arriskuan jartzen dutenean: oztopoak kentzea (patineteak, bizikletak eta motordun ibilgailuak), izozteak daudenean gatza banatzea, etab.

#### POLIZIA ETA EPAITEGIEN ELKARLANA:

22. Atestatuak egitea, kopia bat epaitegira igortzea (ofizioz edo epaitegi interesdunak eskatuta), erregistratzea eta artxibatzea.

#### BESTE ZEREGIN BATZUK:

23. Zerbitzua ematen ez duten txandetan administrazio eta irratiko agentearen zereginak egitea, horiek ezin badira atzeratu.

#### EGINKIZUN KOMUNAK:

24. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
25. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
26. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
27. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
28. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
29. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, alde zuzenik horretarako jarraibideak jasota.



### 3. Parte hartzeko baldintzak

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Karrerako funtzionarioa edo bitarteko funtzionario izatea, zerbitzu aktiboko egoeran egotea Tolosako Udaltzaingoko udaltzain gisa.
- b) Diziplina-espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen baldintzak, izangai hori prozeduratik kanpo geratuko da.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu:

- Udaltzaingoko agente lehenak
- Udaltzaingoko buruzagitzari atxikituak dauden lanpostuak ( Ofizial, Ofizial ordea eta trafiko koordinatzailea).

### 4. Eskaerak

Eskabideak, behar bezala beteta, bost **(5) egun naturaleko epean** aurkeztuko dira, irizpideak Tolosako Udaleko web orrian argitaratu eta e.postaz jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Honela aurkez daitezke eskaerak:

- Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrean (Plaza Zaharra, 6), 07:15etik 14:15era astelehenetik asteazkenera eta ostiraletan, eta ostegunetan, 07:15etik 19:00etara. Eskatzaileek UDATEko langileen aurrean egiaztatu beharko dute nor diren.
- Udal honetako Erregistro Elektronikokoan aurkeztuta.

Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, izangaia kanpo geratuko da. Eskabidean, goiz eta arratsaldeko lan txandan lan egiteko borondatea duela azaldu beharko du interesatuak.

### 5. Eskabideen azterketa

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabide sailak aurkeztutako eskaeren azterketa bat egingo du, eta baliozkoak diren eskaerak aurre baloratuko ditu 7 oinarrian ezarritako balorazio irizpideen arabera.



TOLOSAKO  
UDALA

## 6. Balorazio batzordea

Balorazio batzordearen osaketa teknikoa izango da, eta kideak deitutako lanpostuak eskuratzeko eskatzen den maila bereko edo goragoko titulazio akademikoa izan beharko dute.

Balorazio batzordearen osaketa honakoa izango da: Lehendakari gisa, udaleko Idazkaria; bokal gisa, Giza Baliabideetako arduraduna, Administrazio orokorreko teknikaria eta udaltzainburua; Idazkari gisa, Giza Baliabideetako administrari bat.

Balorazio batzordea autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaz arduratuko da eta bere jardunean, independentzia eta diskrezionalitate teknikoaren printzipioak bermatuko dira.

Interesdunek edozein unetan, balorazio batzordeko kideak, errefusatu ahal izango dituzte, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio edo errekusazio arrazoiren bat badago.

## 7. Lanpostuak betetzeko irizpideak

Udaltzaingoko lanpostu berriak betetzeko eta zerrenda bat osatzeko honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- 1.- 50 urte baino gehiago dituzten udaltzainak: 10 puntu
- 2.- Udaltzain gisa lanean Tolosan edo beste edozein herrian aritu diren agenteak: puntu bat urtebete bakoitzeko
- 3.- Tolosako udalean karrerako funtzionario gisa (Arkauten formazioa eginda) lan egindako zerbitzuak: puntu bat urte bakoitzeko

Balorazio batzordeak, eskaera egin duen udaltzain bakoitzaren espediente pertsonalean dauden merezimenduak ebaluatuko ditu, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziazat hartuz. Puntuazioan berdinketa egongo balitz, berdinketa hausteko lehen irizpidea karrerako funtzionarioei lehentasuna ematea izango da bitarteko funtzionarioen gainera; bigarren irizpidea berdinketa hausteko zozketa erabiliko da.

Ondoren, Balorazio batzordeak zerrenda hurrenkera proposamena egingo du eta web orrian argitaratuko da.



TOLOSAKO  
UDALA

Zerrenda hurrenkera honekin Giza baliabide sailak puntuazio gehiena lortu duten bost udaltzainak goiz, arratsalde eta gaueko lan txandatik, goiz eta arratsaldeko lan txandara aldatzeko proposamena jakinaraziko die aurkeztutako udaltzainei eta lan txanda berriari integratuak izango dira, 2024 urteko udaltzain egutegia onartzen den egunetik aurrera.

## **8. Gorabeherak eta inpugnazioak.**

Interesdunek jarraibide hauen aurka edo epaimahaiaren jardueren ondoriozko administrazio-egintzen aurka jo ahal izango dute, legean ezarritako kasuetan eta bertan xedatutakoarekin bat etorritik.